

BURUZKO PROBLEMAK Bp (1)

- 1.- Zenbat ogi izango dugu, 5 ogi erdi elkartzuz gero?
- 2.- 7 gazta erdi berdinekin zenbat gazta oso izango dugu? Eta zenbat sobratuko da?
- 3.- Kg 1 eta $\frac{1}{4}$ baldin eta badaukazu zenbat kilo laurden daukazu?
- 4.- 90 eurokin, 3 euroko zenbat liburu eros nezake?
- 5.- 3 saski daukat eta guztien artean 20 madari. Lehenengoan 9 madari daude eta bigarreanean 8. Zenbat daude hirugarrenean?
- 6.- Zenbat minutu dira 6 ordu?
- 7.- Aitorrek 80 puxtarri dauka eta Jokinek 17 gutxiago. Zenbat daukate bion artean?
- 8.- Iñakik 43Kg-ko pisua dauka oin baten gainean jarritz gero; bien gainean jartzen bada zenbat pisatuko du?
- 9.- 70 Km orduko abiadura daraman auto batek, zenbat Km egingo du 120 minututan?
- 10.- Aita batek 44 urte dauka eta bere semeak 12. Zenbat urte izango du aitak semeak 24 urte betetzean?

BURUZKO PROBLEMAK Bp (2)

1.- Egunero tortilla 1/2 bat jaten badut, zenbat tortilla jan dut 6 egun pasa ondoren?

2.- 1.000 unitateetan zenbat hamarreko dago?

3.- Amaiak 21 txikle dauzka, bakoitza 5 zentimo balio du. Zenbat ordaindu du txikle guztiengatik?

4.- Amaiak 8 zigilu dauka eta Julenek hiru aldiz gehiago. Zenbat zigilu daukate bion artean?

5.- Metro erdi batean zenbat zentimetro dago?

6.- 10 euroko 8 billete izango banu, zenbat euro izango nuke?

7.- 40 kromo baldin badauzkazu eta 6 zorroetan sartu behar baldin badituzu, zenbat zorro behar izango duzu? Zenbat kromo izango duzu soberan?

8.- 3 ordu laurden, zenbat minutu dira?

9.- Atzo puxtarrietan jolasten, 15 puxtarri irabazi nituen eta gero 6 galdu nituen. Zenbat daukat orain, jolasa 7 puxtarriekin hasi banintz?

10.- Egunero 4 koilarakada ezti hartzen baditut, zenbat koilarakada hartuko dut 15 egunetan?

BURUZKO PROBLEMAK Bp (3)

- 1.- Aneren etxean egunero 300 g kafe hartzen dute. 100 gramoko zenbat pakete behar izango dute 3 egunetarako?
- 2.- Marina 3rak eta 20an heldu zen aireportura, baina hegazkina ez zen ateratzen 4ak arte. Zenbat minutu itxaron behar izan zuen?
- 3.- Xabierren etxeko mahaiaren luzera metro bateko eta 2 dezimetrokoa da. Zenbat cm dauka luzeran?
- 4.- 20 Kg-tan zenbat kilo laurden daude?
- 5.- 10 umeren artean 5 € banatu ditugu. Zenbat zentimo emango diogu bakoitzari?
- 6.- Isabelek bere 10 ikasleen artean 8na orri banatu ditu eta soberan 7 gelditu zaizkio. Zenbat orri zeukan hasieran?
- 7.- Arrautza dozena batek 1,20 € balio du. Zenbat balio dute 3 arrautzek?
- 8.- 3 metroko soka 5 zati berdinetan mozten baditugu, zenbat cm neurtuko du zati bakoitzak?
- 9.- 20 ordutan, zenbat minutu daude?
- 10.- Andreak bi dozena eta erdi karamelu dauka eta Larak 3 hamarreko karamelu. Nork dauka karamelu gehiago?

BURUZKO PROBLEMAK Bp (4)

1.- Hiru metro eta erdi oihal daukat eta 60 cm gastatzen dut. Zenbat cm gelditzen zaizkit?

2.- Aitorrek 5 € dauka. Kromo batengatik 25 zentimo kobratzen badute, zenbat kromo eros lezake?

3.- 360 minutu, zenbat ordu dira?

4.- Garajea 24 gurpil daude. Laurden bat txikiak dira eta gainontzekoa handiak. Zenbat gurpil handi dago?

5.- 20 Kg-tan zenbat kilo laurden daude?

6.- 12 gailetak 12 paketetan zenbat gaileta daude?

7.- Jai batean 57 mutil eta 30 neska ginen. Neska baino zenbat mutil gehiago zegoen?

8.- Aneren nebak 17 urte dauka. Ane jaio zenean, berak 13 urte zituen. Zenbat urte izango du Anek bere nebak 25ak betetzean?

9.- Antibirus programa batek 100 € balio du. Dozena bat erosten badut, zenbat kobratuko didate?

10.- Erikak 42 karamelu zeukan, eta 9 lagunek 7na karamelu eman zioten. Zenbat karamelu dauka orain?

BURUZKO PROBLEMAK Bp (5)

- 1.- 3 metro oihal 5 zati berdinetan mozten badugu, zati bakoitzak zenbat mm izango du?
- 2.- Aurten Aitziberren aita Alemaniara joango da eta han 15 urtez egongo da. Zein urtetan itzuliko da?
- 3.- Aitorrek 2 cl-ko koilarakada hartzen du egunero. Zenbat egun emango du litro erdiko xarabe-botila hartzeko?
- 4.- Egun baten herena gehi 6 ordu erdi, zenbat ordu dira?
- 5.- Bazkaldu ondoren Iñakiren aitona 15 minutuko paseotxo bat egiten du egunero. 8 egun pasa ondoren zenbat minutu egon da paseatzen?
- 6.- Metro laurdeneko ikurrinak egiteko, 18 metro oihal erosi dut. Zenbat ikurrina egin dezaket?
- 7.- 2 m eta erdi oihal daukat eta horren hirukoitza erosten dut. Zenbat cm daukat orain?
- 8.- *Nire amak 15 karamelu zeukan. Niri 3 eman dit eta nire 3 anai-arrebei 2na. Zenbat karamelu gelditu zaio amari?*
- 9.- 800 €-tan, 50 euroko zenbat billete dago?
- 10.- 50 liburuei azala jarri behar diet. Pasa den astean egunero 4ri jarri nion azala. Zenbat geldituko zaizkit oraindik azala jartzeko?